

# KANALAK

Lehenik eta behin, gure negozioa ezaguna egiteko jendearen artean, instagram-en kontu bat sortuko dugu. Modu honetan, gazteak gure bezero nagusiak izango direnez, haiek erabilitako sare sozialean ibiliko gara. Bezeroek gure lonja erabiltzen dutenean, haien baimenarekin, argazkiak aterako diegu, instagramera igotzeko eta jende gehiago gure negozioa ezagutzeko, horrela, bezero gehiago lortuko ditugu.

Horretaz gain, DBHko eta batxilergoko institutuetako AMPA edo zuzendaritzarekin hitz egingo dugu. Huk haien ikasleei gure enpresari buruz hitz egin dezatela, hau da, klase partikularak emateko eta jasotzeko leku bat eskaintzen dugula, erosoago egoteko. Institutuetaz gain, unibertsitateko ikasleen kontseiluekin hitz egingo dugu, klaseak emango dutenak nagusiki unibertsitateko ikasleak izango direlako. Modu honetan, hezkuntza arloan ere ezagunak egingo gara.

Behin bezeroak lortzen ditugunean, guk sortutako web gune baten bidez harremanetan jarriko gara haiekin. Webgune horrek erabilera bat baino gehiago ditu. Alde batetik, erreserba egiteko balio du. Bezeroak gure webgunean sartzekoan ikusiko du egutegi bat, non erreserbatuta dauden orduak agertuko dira. Orduan erreserba egiteko bi aukera egongo dira: zuzenean bezeroek haien etxetik webgunean sartu eta bertan erreserba egiteko estekan sartzeari eskatzen dizkieten datuak idatziz, eta beste aukera da, sailatsunak baldin badituzte, webgunean agertuko da gure telefonoa, horrela nahi dutenean guri deitu ahal digute eta guk egingo diegu erreserba. Gure telefono kontaktua agertzeaz aparte, gure korreo helbidea agertuko da ere bai, arazoren bat edo kexaren bat izanez gero, telefonoz hitz egitea nahi ez badute, email bat idazteko.

Beste aldetik, webgunean ere, instagramen eskegitako argazkiak egongo dira. Modu honetan, norbaitek edo talderen bat bertan ospakizunak edo aktibitateak egiten badituzte, haiei ateratako argazkiak webgunean jartzen baditugu, erakargarriagoa izango da eta beste bezeroetatik ideak hartu ahal dituzte haiek berdina antolatzeke. Edo, nahi badute, beste bezeroekin kontaktuan jarri ahal dira web gunearen bidez, horrelako aktibitateak egiteko.